

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA

## Urriaren 24a: Deiadar!

**E**uskal Herriko euskaltzale guztiek hitzordu garrantzitsua dute Baionan, heldu den urriaren 24an. Egun horretan Deiadar mobilizazioa antolatuko dute Euskal Konfederazioak eta Kontseiluak, Frantziako Estatuan euskarari lege geriza aldarrikatzeko. Manifestaldi hau kontestu berezi batean kokatzen da. Alabaina, duela urte bat pasa Albanel kultur ministroak Frantses Legebiltzarraren aitzinean, Frantziako Gobernuak 2009an lurralde hizkuntzen aldeko lege bat proposatuko zuela hitz eman zuen.

Aukeraren garrantziaz jabeturik, Euskal Konfederazioak eragite lana abiatzea deliberatu zuen orduan. Lege batek bildu behar dituen printzipioak eta arloz arlo xedatu behar dituen puntuak landu zituen, eta EEPko (Euskararen Erakunde Publikoa) presidentearen bitartez ministroari helarazi. Denbora berean lurralde desberdinetako hizkuntzak sustatzen dituzten herri mugimenduekin elkarlanean hasi zen, plataforma baten inguruan indarrak biltzeko. Ariketa ez zen erraza izan hain desberdinak baitira batzuen zein besteen historia eta egoera. Gainera hizkuntza egoeraz gain lurralde horien egoera politikoak antzak dira oso, eta hizkuntza politikaren eskumena finkatzekotan, adibidez, eredu bakar bat ezinezkoa da.



DANI BLANCO

Eztabaidak irailean hasi eta zenbait hilabetez iraun zuen, baina azkenik testu amanakomuna publikoki zein diputatu batzuei aurkeztua izan zen joan den maiatzean ([www.deiadar.org/spip.php?article20](http://www.deiadar.org/spip.php?article20) helbidean kontsulta daiteke). Lurralde guztietan mugimenduek badakite legearen inguruko bataila zaila izanen dela Frantziako Parlamentuan eta probabilitate handiz, onartuko den legeak ez dituela beteko hizkuntza gutxietuek behar dituzten politika eraginkorrak bideratzeko oinarri juridiko guztiak. Erronka argi da: legezko koadro malgu minimoa lortu, orain arte militanteen indarrez lortutakoa bermatzeko eta geroari begira ateak eta leihoak irekitzeko.

Erronka mugatu baina guztiz inportante honi beste bat gaineratzen zaio halere. Hilabeteak joan, hilabeteak etorri, legerari buruz deus ez baita oraindik zehaztu. Lege zirriborrorik ez da argitaratu, legebiltzarreko egutegian ez da kokatu eta hizkuntzen aldeko herri mugimenduekin aipaturiko konertzazioa ere ez da bideratu. Azkenik, pasa den astean, Albanel ministroa ordezkaria izan da. Hitza beteko ote denari buruz zalantzak piztu dira. Arrazoi bat gehiago urriaren 24an, Baionan eta beste lurraldeetan izanen diren herri mobilizazioak ahal bezain indartsu izan daitezten! ■

«  
Albanel ministroa ordezkaria izan da. Arrazoi bat gehiago urriaren 24an, Baionan izanen den herri mobilizazioa ahal bezain indartsu izan dadin!  
»

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gora joan zaizkio Irungo Real Unión futbol taldeari bigarren maila galdu zuetik. Gogoan ditut haurtzaroan Errenteriako Larzabal zelaian bertako Touringen aurka jokatzeko derbiak. Topoz propio etorritako jende saldoa, Topobidea beteta eta karabineroak doakoan lekuko. Gogoan dut “Viva los rojos” errekalde botatako oihuari, edozein zela ere partidaren emaitza, ematen zizkieten txaloak eta sortzen zituen algarak inguruko giza semeengan. Ai beranduago ulertutako garrasi sutsu haiek! Herri hura ezagutzeko egokiera ematen zuen

## Berrogei urtetik

bat az jaten zuenean. Gero etorriko zen, Alamedarainoko oinezko bidearen ondoren herriko bandak “El Touring de Renteria...” eresia jotzen zuenean garaipenaren seinale, kotxerik ez zuten jokalariek zenbaiten lekukotasunaz. Nekez ezagutuko dugu berriz bi horien arteko derbirik. Oretetako lau maila beherago baitabil ez dakit zeren seinale. Aurtengoak Anoetan eta Galen jokatu dira eta baliteke Topoa izatea haien antza izango duen elementu bakarra, kotxea aparkatzea baitugu zigor. ■

igandetako Larzabalek, langile-riak, astegunetako urdin mahoizkoa labaderoan, traje eta alkandora zurizko lepokoa kor-